

BASTARDIX

Amestutako Lurraldean

Bastardix taldearen (Nafarroa) lehen zantzuak 2015ean emango dira. Irlandako musika izan daiteke soinu aldetik taldea lerrokatu duena zelta kutsuko doinuetara, baina Euskal Herriko eta estatuko hard, punk eta rockak hartzen dute musika ekipajearen beste erdia, edo alderantziz al da? Ander Nagorek beste zortzi atomo batu ditu osatzeko "nafar peto-petoa" duen izakera eta jarduera sasi-basatia. Atomoak trinkoak dira, eta batasunaren alimaleko leherketa, izena bezala, endekatua edo Iparraldean esaten den moduan, "bastarta". Estreinako diskoa 2019an argitaratu dute, "Herederos de nadie" (Gor). Beti datoz garaiak, eta hauetan ere ez dute astirik hartu lozorrotzeko, baina amets egin dute, noski, lurraldearekin eta euren musikarekin.

Bastardix taldeak "Amestutako lurraldean" diskoa Drum Groove Studioan (Berriozar, Nafarroa) grabatu du 2020 eta 2021ean zehar Josu Erviti soinu teknikariaren gidaritzapean. Saioa Venturak "Su legado" abestian bertsoa egin du. Iñaki Ortiz de Villalbak "Bakardadean" kantuan abestu du.

Bastardix taldearen "Amestutako lurraldean" bigarren diskoak etengabe erabiliko ditu musika-konstanteak, horiek baitira taldearen aldatu gabeko bizi-konstanteak. Musika pozkorra darabilte sistema eta gizaritearen gabeziak eta hutsuneak kritikatzeko esperantza argi bat dutela buruan, amestutako lurralde aske horretan oinak jarri eta poztasunean bizi. Bastardix taldeak rocka eta zelta koloreko irlandar folka ditu oinarri sendo eta alai entzuleari helarazteko proposamen askatzaile eta jostalaria. Martxa, bai, eta engaiamendua ere bai. Bastardix taldearen musikak badauka indarra, dibertimendua eta letren atal soziala uztartzeko, nahiko zuzenak baitira, ironia barra-barra eta trufa mordo. Kantu errazak entzuteko, konplexutasun gutxikoa baina erakartzailea aldi berean. Adoretsuak dira kontzertuetan kantuekin jendea txunditze. Josu Erviti teknikariak goi-goian utzi du taldearen maila. Kantuek soinu trinkoa dute eta rock bikaina nahasi dute folk erauntsiekin. Emaitzak efektu itsaskorra du lehen entzunalditik. Hori da Bastardix taldearen osagai interesgarriena; hots, rockaren abaniko zabalak, irlandar folkak eta zelta kutsuko aireak jaurtiko gaituela amestutako lurraldera non festa giroa iraunkor bilakatuko zaigun, nahiz eta balada tankerako doinu batzuk zerbait lasaitu jaitxo. Salbuespenak, ordea, ez du Bastardix taldearen soinu-zirimola baretuko.

La llegada

Beti bezala, muturreko eskuinak begia jarri dio immigrazio ilegalari. Izugarriko astakeriak entzuten ari gara horren inguruan, pertsona horiek jasaten ari diren tratua umiliagarria da eta deitoragarria. Etorkinaren larrazalean jarri gara kantua idaztean. Hasierrako doinu klasikoak erabili ditugu, La Raíz taldearen antza duten erritmoekin gabiltza, amaieran musika klasikoaren tankera duten zati batzuk interpretatu ditugu.

Su legado

Urte luzez borrokatu izan da hemengo kultura errespetatu dadin. Gure aitona-amonek euskararengatik borrokatu behar izan zuten hura mantentzeko, eta bide luze bat egin da gaur egun ditugun aukerak izateko. Hala ere oraindik entzuten dira ahotsak esanez ez dugula izan inolako oztoporik. Abesti honetan letra nabarmentzen da melodia baino gehiago.

Disnei kanta

Gure ohiturak aldatzen ari dira. Pixkanaka antzinako kondairak desagertuko dira eta Disney markak ekartzen dizkigun berriak geratu. Hala ere, aldaketa hori logikoa izan daiteke, kontuan izanda gizarte bezala "aurrera" egin dugula azkenengo urteetan. Disney kantan, euskal mitologia modu alai eta indartsu batean defendatzeko Ska-p eta Toy Dolls taldeen eritimo eta musika iradokizunak jaso ditugu.

Zuhurkeria

Munduak iraungipen-data dauka, hori ez da inolako misterioa. Hala ere, etekinaren ize-nean guri bost. Kapitalismoaren ondorio larrietako bat egosten ari da oraintxe bertan, eta gauzak aldatzen ez diren bitartean, guz-

tiok garesti ordainduko dugu hemendik lasterrera. Estrofitan entzun daiteken akordeoia Dropkick Murphys taldearen "Rose Tatto" abestiaren eragina dauka. Le-loan, aldiz, Mago de Oz taldearen eragina ikusi daiteke erabiltzen den erritmoan.

Antisistema total

Nork ez du ezagutzen guztiaren aurka jotzerakoan absurdo batean erortzen den tipoa? Guk gure antisistema pertsonala dugu taldean, Koldo du izena, eta gauzak aldatu ditu. Gure lehenengo proiektuan La Patata Irlandesa bezalako abesti bat egin nahi izan dugu. Letra xehebrea da abesti osoan eta kasu honetan punk musika darabilgu.

Descanse en paz

Askotan ezarri dizkiguten helmuga batzuk jarraituta, bizitza eskuetatik joan zaigu, eta gainera, behar den moduan disfrutatu gabe. Hausnarketa egiteko momentua, garagardo baten laguntzaz. Bizardunak taldearen eragina dugu tinbalean eta distortsioaren erabilera. Bestetik, folka nagusitzen da irlandar abesti tipikoen antzera.

Bolant Dantza

Luzaiden sortutako festa zerbait berezia dauka bertan parte hartzen dugun guztiontzat. Musika, dantza eta festa, ez zaizu ezer faltako... Edo agian bai? Bolant Dantza abestiarekin, gure kulturaren ezaguna den abesti bati itxura aldatu diogu The Clan eta The RumJacks taldeen "Tell Me Ma"-ren antzera. Folk abesti honetan, ahotsa sartu diogu ospakizun hau azaltzeko. Beste aldetik, melodietan Oskorri taldearen eragina ere ikusi daiteke.

Abesti baten ipuina

Pixkanaka-pixkanaka behar den garrantzia ematen ari zaie buruko gaixotasunei. Zoritzarrez, sistema ez da hain ona eta, askotan, berandu iristen da. La Raíz taldearen ispiluari begiratu diogu, eta eguneroko ger-



takizun bati buruz hitz egin nahi izan dugu beste ikuspuntu batetik, horregatik melodia alaien erabilera abestian zehar.

Bakardadean

Gure onura besteenaren gainetik jartzen badugu, ez bagara besteen arazoak jabetzen edo ez badiogu laguntzen behar duenari, gure espiritua usteltzen joango da. Nork lagunduko digu bakardadeaz inguratutako munduan? Folka da nagusi eta hemen ere Mago de Oz taldearen eragina ikusi dezakegu. Melodia lasaiaren ondoren datorren zatian, badago "Piratas del Caribe" abestiaren eragina.

La nueva revolución

Harrigarria da ultrasokuinak esaten dituen astakeriak nola onartzen diren sozialki, eta ez izatea inolako erantzunik. Ultrasokundarrek erabiltzen dituzten ergelkeriekin idatzi dugu letra. Hala ere, motz geratu gara.

In nomine domini

Inkizioaren garaiak ez ziren batere apalak izan elizaren beste aldean zeudenentzat. Oroitarazi nahi ditugu gurutzaren izenean egin diren astakeriak, gainera ez dator gaizki gaur egungo botereak erabiltzen dituen teknikak ulertzeko.

Pirañak

Hurbileko pertsona batek bere sexualitatearengatik izan zuen esperientzia txarra du oinarrian "Pirañak" kantuak. Espero zuena baino egoera bortitzagoa jasan zuen, eta inguruko artean ez zuen harrera ona izan. Dirudenez, oso aurrerakoak gara sexualitatearen inguruan norberaren seme edo alaba den arte. Oraindik ere, burua bueltatzen dugu bikote homosexual bat ikusten dugunean... Hausnarketa beti dago ongi, denok asko dugu hobetzeko.

Rubo: gitarra, ahotsak
David Erro: zeharkako txirula, whistlea, ahotsak
Aron Arguiñano: banjo
Joanes Arrizabalaga: biolina
Ander Nagore: ahotsa
Esti Iribarren: akordeoia
Asier Garatea: bateria
As Zait: gitarra, ahotsak
Gorka Lascort: baxua

ritxi aizpuru + bastardix
(2021eko azaroaren 23a)